

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720

BAO. 141. zk. 2001, uztailak 23. Astelehena

— 12785 —

BOB núm. 141. Lunes, 23 de julio de 2001

Laburpena / Sumario

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Iragarkiak / Anuncios

Hirigintza Saila

Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren arautegia argitaratzeko iragarkia.

12785

Departamento de Urbanismo

Anuncio por el que se publica la normativa del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo.

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Igorreko Udala

12893

Ayuntamiento de Igorre

Getxoko Udala

12895

Ayuntamiento de Getxo



I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de BizkaiaForu Aldundia / Diputación Foral
Iragarkiak / Anuncios**Hirigintza Saila****Getxoko Hiri Antolaketazko Plan Orokorrari buruzko arautegia argitaratzen duen iragarkia.**

Urtarrilaren 18ko 2000, Foru Erabaki bidez, Getxoko Hiri Antolaketazko Plan Orokorraren behin betiko onartzen duen, BHI-108/99-P03 espedientea, Toki Erregimeneko Oinarrien arautzailea den apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 eta otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 65 artikuluen ondoretarako agiria dilijentziatu, onartu den hirigintzako arautegia artxibatu eta argitaratzeko zuzenketa batzuk inposatu eginaz. Aipatu zuzenketa egin izan direnez gero, argitalpen egunean indarrean hasiko den arautegia argitaratzen da.

Hirigintzako foru diputatuak, Juan Cruz Nieves Prada

HIRIGINTZAKO ARAUAK**TESTU BATEGINAREN - BEHIN BETIKO ONESPENA**

LEHENENGO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO KAPITULUA

PLANAREN IRAUPENA, EDUKIA ETA ONDOREAK**1.1.1. artikulua.—Izatea eta lurralde-eremua**

1. Getxoko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorra udalerriko antolamendu osoko tresna da.
2. Modu zuzenean edo haren garapenerako aurreikusitako plangintza tresnen bidez mugatuko ditu lurzoruaren jabetasuneko eskubidearen beraren hirigintza-arloko ahalmenak eta ahalmen horien eraginkortasuna eta legezko egikaritzapena baldintzatzen dituzten betebeharrak zehaztuko ditu.
3. Haren lurralde-eremuak Getxoko udal barrutia hartzen du oso-osorik, hala ere, zenbait manuren lurralde-barrutia murriztagoa izango da, lurzoru mota eta kategoria zehatz batzuei doakienez gero.

1.1.2. artikulua.—Iraupena eta ondoreak

1. Planeko ordenantzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeie egungarrenean jarriko da indarrean Plan Orokorra eta azken horren iraupena mugagabea izango da, hala eta guztiz ere, unean-uneko aldaketarik edo berrikuspenik egin ahal izango da, aurretiaz programaturik izan zein izan ez.
2. Getxoko udal mugapeari doakionez, Hirigintza-Plangintzako Arau Subsidiarioak eta Hirigintza Arauetan arautzen diren Ordenantzak bete-betean ordezkatuko ditu Plan Orokorra, arau horiek indargabetuko baitira Plana indarrean jartzearekin batera.
3. Beraz, indarririk gabe eta haien izapidetza behin-betiko ezeztatu ta geldituko dira plangintzaren garapenerako eta betearazteko tresna guztiak, Plan Orokorra indarrean jarri orduko behin-betiko onartu baldin ez badira.
4. Behin indarrean jarri gero, Plan Orokorren ondoreak indarrean dagoen antolamenduak eratzikiko dizkionak izango dira.

1.1.3. artikulua.—Dokumentazioa

Plan Orokorra dokumentu idatzien eta grafikoen multzoaz osatua dago, batzuek izaera lotarazlea dute eta besteak argigarriak baino ez dira.

1. Dokumentu lotarazleak

Izaera lotarazlea izango dute ondorengoek:

Departamento de Urbanismo**Anuncio por el que se publica la normativa relativa al Plan General de Ordenación Urbana de Getxo.**

Mediante Acuerdo Foral de 18 de enero de 2000, se procedió a la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo, expediente BHI-108/99-P03, imponiéndose unas correcciones para proceder a la diligenciación del documento, archivo y publicación de la normativa urbanística aprobada, a los efectos del artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, y del artículo 65 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero. Como quiera que dichas correcciones han sido debidamente subsanadas, se procede a publicar la normativa, la cual entrará en vigor el mismo día de su publicación.

El Diputado Foral de Urbanismo, Juan Cruz Nieves Prada

NORMAS URBANISTICAS**APROBACION DEFINITIVA - TEXTO REFUNDIDO**

TITULO PRIMERO

DISPOSICIONES GENERALES

CAPITULO PRIMERO

VIGENCIA, CONTENIDO Y EFECTOS DEL PLAN**Artículo 1.1.1.—Naturaleza y ámbito territorial**

1. El Plan General de Ordenación Urbana de Getxo es el instrumento de ordenación integral del municipio.
2. Directamente o por medio de los instrumentos de planeamiento previstos para su desarrollo, delimita las facultades urbanísticas propias del derecho de propiedad del suelo y especifica los deberes que condicionan la efectividad y ejercicio legítimo de dichas facultades.
3. Su ámbito territorial se extiende al término municipal de Getxo, aunque determinados preceptos tendrán un ámbito territorial más reducido en cuanto hacen referencia a concretos tipos y categorías de suelo.

Artículo 1.1.2.—Vigencia y efectos

1. El Plan entra en vigor a los veinte días de la fecha de publicación de sus Ordenanzas en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y su vigencia será indefinida, sin perjuicio de sus eventuales modificaciones o revisiones, programadas o no.
2. El Plan sustituye plenamente, en lo que se refiere al término municipal de Getxo, a las Normas Subsidiarias de Planeamiento, que quedan derogadas a su entrada en vigor, así como a las Ordenanzas que se regulan en estas Normas Urbanísticas.
3. Quedan, por tanto, sin efecto y con su tramitación suspendida definitivamente, todos los instrumentos de desarrollo y ejecución del planeamiento que no se hubieren aprobado definitivamente a la entrada en vigor del Plan General.
4. Los efectos del Plan General, una vez entrado en vigor, son los que le atribuye el Ordenamiento vigente.

Artículo 1.1.3.—Documentación

El Plan General se integra con un conjunto de documentos escritos y gráficos, unos de carácter vinculante y otros meramente informativos.

1. Documentación vinculante

Tendrán carácter vinculante:

a) *Dokumentu idatziak*

— *Hirigintza-arauak*, Planak proposatutako hirigintza-antolamenduren oinarriko multzo arautzailea osatzen dutenak, lurzoru mota eta kategoria bakoitzari eman beharreko tratamendua definituz.

— *Jarduketako egitaraua*, Plan Orokorra bertan adierazitako epeen barruan garatzeko xedeak, gidalerroak eta estrategiak adierazten ditu, proposatutako hiri-eredua lortu ahal izateko, alegia.

b) *Dokumentu grafikoak*

Planoaren zk.	Izenburua	Eskala
1	Eskualde barruko kokaera	1/50.000
2	Egitura organikoa eta orotariko erabilerak	1/5.000
3	Lurzoruaren sailkapena	1/5.000
4	Sistema orokorrak	1/5.000
5.1.	Saneamendu sarea	1/5.000
5.2.	Uraren banaketako sarea	1/5.000
5.3.	Argiteriako sarea	1/5.000
5.4.	Elektrika sarea	1/5.000
5.5.	Gas banaketako sarea	1/5.000
5.6.	Telefoniako sarea	1/5.000
6.1.	Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizakorraren antolamendua (1)	1/2.000
6.2.	Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizakorraren antolamendua (2)	1/2.000
6.3.	Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizakorraren antolamendua (3)	1/2.000
6.4.	Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizakorraren antolamendua (4)	1/2.000
6.5.	Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizakorraren antolamendua (5)	1/2.000
6.6.	Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizakorraren antolamendua (6)	1/2.000
6.7.	Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizakorraren antolamendua (7)	1/2.000
6.8.	Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizakorraren antolamendua (8)	1/2.000
7	Lurzoru urbanizagaitzaren antolamendua	1/5.000
8	Hiri-lurzoruaren kudeaketa	1/5.000
9	Lurzoru urbanizakorraren kudeaketa	1/5.000
10	Babespeko etxebizitzaren aurreikuspena	1/5.000
11	Babespeko elementuak	1/5.000

2. **Lotarazleak ez diren dokumentuak**

Plan Orokorren gainerako dokumentuak argigarriak baino ez dira eta proposamenak aaltzerakoan zeintzuk izan diren erabilitako datuak eta azterketak agertarazi baizik ez dute egiten. Dokumentu lotarazleak ulertzen lagungarriak izango dira. Planoetan azaldutako bide-erretanak ez dute izatera lotarazlerik zintarriek, aparkalekuek, espaloiek eta abarrek eduki behar dituzten jarrera eta luze-laburrak seinalatuta, hala ere, bide-sistemaren izaera gordetzen dute.

BIGARREN KAPITULUA

**BERRIKUSKETA, ALDARAZPEN
ETA INTERPRETAZIOA**1.2.1. **artikulua.—Berrikusketak**

1. Plan Orokorren berrikusketak izango da, lurraldeko egitura orokorraren eta organikoaren, edo lurzoruaren sailkapenari dagokionez irizpide berriak ezartzea. Hori guztia egin da bestelako lurralde-eredua hautatu delako, haren gaitasuna ahitu delako edo ondoko gorabeheretakoren bat agertu delako:

a) Getxoko udal barrutian eragina izango duen plangintzako maila goragoko tresna bat onartzen denean, eta horrela xedatzen denean eta beharrezkoa denean.

b) Planaren lurralde-barrutiko populazioaren aurreikuspenetan oinarriko aldaketa edo iraulketa dagoenean.

Oinarriko aldaketa edo iraulketa deituko zaio ondorengo bi kasuetako bati:

— Populazioaren haziera urteko %1,5 metakorretik gorakoa izatekotan lau urteko batean.

— Populazioa urteko %0,5 metakorretik gorako eritimoan gutxitzekotan lau-urtebeteko batean.

c) Lurzoruaren sailkapenaren eta lurraldeko egitura orokorraren eta organikoaren aldaketa orokorra dagoenean, hau da, aldeztaketa, erabilerak eta eraikuntzaren intentsitateen arloko zehaztapenen multzoak eragin-

a) *Documentos escritos*

— *Normas Urbanísticas*, que constituyen el cuerpo regulador básico de la ordenación urbanística propuesta por el Plan, definiendo el tratamiento específico de cada tipo y categoría de suelo.

— *Programa de Actuación*, que expresa los objetivos, directrices y estrategias para el desarrollo del Plan General en los plazos que en el mismo se indican, a fin de alcanzar el modelo urbano propuesto.

b) *Documentos gráficos*

Plano número	Título	Escala
1	Encuadre regional	1/50.000
2	Estructura orgánica y usos globales	1/5.000
3	Clasificación del suelo	1/5.000
4	Sistemas generales	1/5.000
5.1.	Red de saneamiento	1/5.000
5.2.	Red de agua	1/5.000
5.3.	Red de alumbrado	1/5.000
5.4.	Red de energía eléctrica	1/5.000
5.5.	Red de gas	1/5.000
5.6.	Red de telefonía	1/5.000
6.1.	Ordenación de Suelo Urbano y Urbanizable (1)	1/2.000
6.2.	Ordenación de Suelo Urbano y Urbanizable (2)	1/2.000
6.3.	Ordenación de Suelo Urbano y Urbanizable (3)	1/2.000
6.4.	Ordenación de Suelo Urbano y Urbanizable (4)	1/2.000
6.5.	Ordenación de Suelo Urbano y Urbanizable (5)	1/2.000
6.6.	Ordenación de Suelo Urbano y Urbanizable (6)	1/2.000
6.7.	Ordenación de Suelo Urbano y Urbanizable (7)	1/2.000
6.8.	Ordenación de Suelo Urbano y Urbanizable (8)	1/2.000
7	Ordenación de Suelo No Urbanizable	1/5.000
8	Gestión del Suelo Urbano	1/5.000
9	Gestión del Suelo Urbanizable	1/5.000
10	Previsión de vivienda protegida	1/5.000
11	Elementos protegidos	1/5.000

2. **Documentación no vinculante**

El resto de los documentos del Plan General tienen un carácter informativo y ponen de manifiesto cuáles han sido los datos y estudios utilizados en la formulación de las propuestas. Facilitará la interpretación de los documentos de carácter vinculante. Los canales viarios reflejados en los planos no son vinculantes en lo que se refiere a posición y tamaños de bordillos, aparcamientos, aceras, etc., aunque en todo caso mantienen su carácter de sistema viario en toda su integridad.

CAPITULO SEGUNDO

**REVISIÓN, MODIFICACION
E INTERPRETACION****Artículo 1.2.1.—Revisión**

1. Se entiende por revisión del Plan General la adopción de nuevos criterios respecto de la estructura general y orgánica del territorio o de la clasificación del suelo, motivada por la elección de un modelo territorial distinto, por el agotamiento de su capacidad o por la aparición de alguna de las siguientes circunstancias:

a) Cuando se apruebe un instrumento de planeamiento de rango superior que afecte al término municipal de Getxo y que así lo disponga o haga necesario.

b) Por la alteración o variación sustancial en las previsiones de población dentro del ámbito territorial del Plan.

Se considerará alteración o variación sustancial alguno de los dos casos siguientes:

— Que el crecimiento de la población sea superior al 1,5% anual acumulativo durante un cuatrienio completo.

— Que la población disminuya a un ritmo superior a un 0,5% anual acumulativo durante un cuatrienio completo.

c) Por la alteración generalizada de la clasificación del suelo y de la estructura general y orgánica del territorio, determinada por el conjunto de determinaciones en materia de zonificación, usos e intensidades de

da, Planak esleitutako lurralde-ereduaren osotasun konformatzailea diren aldetik, oro har.

d) Plana indarrean jarri eta zortzi urtegarrenera, udalak Jarduketako Egitarauren berrikuspenari aski iritzi ezik.

e) Esparru juridiko-urbanistikoa aldakuntzak eragingo dituen oinarritzko beste edozein gorabehera dela-eta, berrikuspene egitea komenigarria denean.

2. Jarduketako Egitara, Plan Orokor honek daukana, lau (4) urterik behin berrikusiko da legez ezarritako izapideaz, berari datxezkion atarramenduak datozkiola.

1.2.2. artikulua.—Aldarazpenak

1. Plan Orokorren aldarazpena izango da hura osatzen duten elementuetakoren baten edo batzuen aldakuntza berezia, nahiz eta aldakuntza horrek zenbait aldaketa eragin dakien lurzoruaren sailkapenari edo kalifikazioari eta Sistema Orokorrei, edo eta Planaren Jarduketako Egitara bera berrikusarazi dadin.

2. Ez dira aldarazpen legez joko ondokoak:

a) Planeamenduaren berregokitzeak, konponbide alternatiboen bidez ordezkatzeko gai direnean, Planean bertan asmatutako garapeneko tresnez baliaturik eta haren arautegian ezarritako baldintzen arabera.

b) Planak ezarritako kopuruak (%5) ehuneko bostetik gora aldazkiko ez dituzten gorabeherak, eskala planimetricoa aldatzeak edo tokian bertan egindako benetako neurketak doitzeak eraginda daudenetan.

c) Udal ordenantzen onarpena Planaren zenbait alderdi garatzeko, azken horiek honako arau hauetan aurreikusita egon zein egon ez, eta horien eduki materialaren kontra egiten ez duten heinean.

d) Udalak berak hartuko dituen erabakiak Planaren zenbait alderdi argitzeko edo adierazteko.

1.2.3. artikulua.—Interpretazioa

1. Plan honetako arauak hitzez hitzeko idazketari begira interpretatuko dira eta haien testuinguruari dagokionez, memorian azaldutako xedeei eta helburuei begira eta segidan agertuko diren irizpideen arabera.

2. Dokumentu grafikoren batzuk bata bestearekin bat ez etortzekotan, xehetasun edo eskala handiagokoak gutxiagokoaren gainetik lehen-tasuna izango du, hirigintza-antolaketa daukaten planoak besteek nagusituko bazaizkie ere.

3. Arau grafikoak eta idatzizkoak elkarren kontraesanean egonez gero, dokumentu idatziak betiere nagusi izango dira, salbu eta dokumentazio grafiko horrek Plan Orokorren bildutako planoetatik ateratako zehaztasunak batzen dituenen.

4. Dokumentu honetan agertzen diren akats materialak zein grafikoak udal batzarraren erabakiaren eta azken hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, erabaki hori garrantzitsuegia denean izan ezik; kasu horretan Planaren aldarazpena burutuko litzateke.

5. Planaren adiera egiterakoan oinarritzko irizpideak izango da erakuntza-ustiaketa eta hiri-ekipamenduaren artean ahalik eta orekarik handiena lortzea.

BIGARREN TITULUA PLAN OROKORREN GARAPENA ETA BURUTZAPENA

LEHENENGO KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

2.1.1. artikulua.—Organon jarduleak

Plan Orokorren garapena eta egikaritzapena Getxoko udalaren esku dago, hala ere, herritarrek parte ahal izango dute eta Estatuko Administrazio, Autonomi Erkidego eta Foru Administrazioako erakunde eta organismoek euren eratzikipen eta eskumenak izango dituzte.

2.1.2. artikulua.—Lehentasuna garapenari dagokionez

Plan Orokorren zehaztapenen garapenerako eta egikaritzapenerako aurreikusitako jarduketak atxiki beharko zaizkie Planaren beraren dokumentu arau-emaileetan ezarritako lehentasuneko ordenari eta epeei.

2.1.3. artikulua.—Plangintzaren garapena eta burutzapena

Honako Plan hau garatzekotan, bertan xedatutako lurzoru motaren arabera egingo da eta horretarako erabilgarri diren legeek agindu bezala, Plan Partzialak eta Plan Bereziak eta Xehetasuneko Azterketak direla medio, hauek bururatzen direla beharrezko proiektuez baliaturik, hala nola baitira Hirigintzako Proiektuak, Desjabetze-Proiektuak, Birzatiaketako Proiektuak, Kontentsazio Proiektuak eta Eraikuntzako Proiektuak.

la edificación, globalmente consideradas como un todo conformador del modelo territorial escogido por el Plan.

d) Por el transcurso de ocho años de vigencia del Plan, salvo que el Ayuntamiento considere suficiente la revisión del Programa de Actuación.

e) Cualquier otra circunstancia que determine modificaciones sustanciales del marco jurídico-urbanístico que haga aconsejable la revisión.

2. El Programa de Actuación contenido en el presente Plan General se revisará cada cuatro (4) años mediante el trámite previsto legalmente y con las consecuencias inherentes a la misma.

Artículo 1.2.2.—Modificaciones

1. Se entiende por modificación del Plan General la alteración singular de alguno o algunos de los elementos que lo integran, aun cuando dicha alteración lleve consigo cambios aislados en la clasificación o calificación del suelo y en los Sistemas Generales o imponga la revisión del Programa de Actuación del Plan.

2. No tendrán la consideración de modificaciones:

a) Los reajustes del planeamiento que sean susceptibles de soluciones alternativas a través de los instrumentos de desarrollo previstos por el Plan y en las condiciones que se establecen en su Normativa.

b) Las variaciones que vengan motivadas por los cambios de escala planimétrica o por ajuste en las mediciones reales sobre el terreno, que no alteren en más de un cinco por ciento (5%) las cifras establecidas por el Plan.

c) La aprobación de ordenanzas municipales para el desarrollo de determinados aspectos del Plan, se hallen o no previstas en estas Normas, en tanto no contradigan o desvirtúen su contenido material.

d) Los acuerdos que el Ayuntamiento adopte como aclaración o interpretación de determinados aspectos del Plan.

Artículo 1.2.3.—Interpretación

1. Las Normas de este Plan se interpretarán atendiendo a su redacción literal y en relación con su contexto, atendiendo a los objetivos y finalidades expresados en la memoria y conforme a los criterios que, seguidamente, se exponen.

2. En caso de discrepancia entre documentos gráficos, tendrá primacía el de mayor sobre el de menor detalle o escala, si bien prevalecerán sobre los restantes planos los que contengan la Ordenación urbanística.

3. En caso de contradicción entre la normativa gráfica y la escrita prevalecerá siempre la documentación escrita, salvo que la misma se limite a recoger datos y determinaciones provenientes de los planos que integran el Plan General.

4. Los errores materiales, tanto escritos como gráficos, que se detecten en este documento se corregirán mediante acuerdo del Ayuntamiento Pleno que se publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia», salvo que por su importancia o trascendencia sea conveniente proceder a la modificación del Plan.

5. En la interpretación del Plan se tendrán como criterios prevalentes los que conduzcan a un mayor equilibrio entre aprovechamiento edificatorio y equipamiento urbano.

TITULO SEGUNDO DESARROLLO Y EJECUCION DEL PLAN GENERAL

CAPITULO PRIMERO DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 2.1.1.—Organos actuantes

El desarrollo y la ejecución del Plan General corresponde al Ayuntamiento de Getxo, sin perjuicio de la participación que en ello tendrán los particulares y de las atribuciones y competencias que correspondan a los demás entes y organismos de las Administraciones Central, Autonómica y Foral.

Artículo 2.1.2.—Prioridad en el desarrollo

Las actuaciones previstas para el desarrollo y ejecución de las determinaciones del Plan General deberán sujetarse al orden de prioridad y plazos que se establecen en los documentos normativos del propio Plan.

Artículo 2.1.3.—Desarrollo y ejecución del planeamiento

El presente Plan se desarrollará, de acuerdo con la clase de suelo definido en el mismo y con lo previsto en la legislación aplicable, mediante Planes Parciales, Planes Especiales y Estudios de Detalle, que se llevarán a cabo por medio de los correspondientes Proyectos de Urbanización, Proyectos de Expropiación, Proyectos de Reparcelación, Proyectos de Compensación y Proyectos de Obras de Edificación.

2.1.4. artikulua.—Plan Orokorren menpekotasun hierarkikoa

1. Plan Orokorra garatuko duten plangintzako tresnak halabeharrez atxiki beharko zaizkie beraren zehaztapenei.
2. Planak ezarritako egiturak edo Sistema Orokorrek garatzeko eta ezartzeko asmoa duten Plan Bereziek, aurretiaz ezarritako eremuaren mugak berregokitu ditzakete haren zehaztapenekin bat etor daitezen eta haren diseinua koherenteagoa eta erregularragoa izan dadin.

Eta honelakoetan, Plan Bereziarekin batera, Plan Orokorren aldarazpena gauzatuko da, baita eragina gertatuko diren Planaren garapeneko tresnena ere, eragindako aldaeraren erara molda ahal daitezen.

2.1.5. artikulua.—Plangintza taxutzeko ekimena

1. Honako Plan hau garatu beharrean taxututako planak edo tresnak ekimen publiko edo pribatuzkoak izan daitezke.
2. Herritarrek eskubidea daukate planeamenduko gaietan aurretiaz kontsultatzeko eta gogoko duten antolaketaren tresnak azaltzeko, baina betiere kasu bakoitzerako beharrekoko diren dokumentuak aurkezten dituztela eta Plan Orokorrean eta zuzenbidezko antolamenduan ezarritakoari lotzen zaiela.

2.1.6. artikulua.—Mugak zehaztea

1. Plan orokorrek xedatutako plangintzako barrutien mugak birdoitu ahal izango dira bere garapeneko tresnen bidez eta ondokoek beharturik:
 - Dauden lerrokadurak edo eraikuntza-lerroak.
 - Lurzoruaren ezaugarri topografikoak.
 - Zuhaitziak edo bestelako elementu interesgarriak daudenean.
 - Lurzutien mugak.
2. Formari dagokionez, birdoiketa horrek ez du eragingo bihurturik edo murrizketarik, eta Plan Orokor honen planoetan mugatutako azalereetan ez da (%5) ehuneko bostetik gorako gehitxerik ez gutxitxerik izango.

BIGARREN KAPITULUA
GARAPEN PLANGINTZA

LEHENENGO ATALA
PLANGINTZA MOTAK

2.2.1. artikulua.—Hiri-antolamendurako plan partzialak

1. Antolamenduko Plan Partzialen xedea da lurzoru urbanizakorretan Plan Orokorra garatzea lurralde-eremuen antolaketa xehatuaren bidez, eta Planak eurentzako ezarritako antolaketaren baldintza lotarazleak egokitu zaizkie.
2. Plan Partzial bakoitzak antolatutako eremuaren barruan sektorearen guztizko azalera sartu beharko da Sistema Orokorrenak izan ezik. Plan Partziala taiutu aurretik, berari datzekion Sistema Orokorrek Plan Bereziaren bitartez antola daitezke, beharrezkoa izango balitz.

2.2.2. artikulua.—Plan Bereziak

1. Plan Berezia lurraldeko sektoreen antolaketak garatzeko bidea edo tresna da eta beraren xedeetan jasotako hirigintza-alderdien barruan eragin mugatua du.
2. Plan Berezien helburua izan daiteke Hirigintza-Antolamenduan finaturik daudenetakoetarik edozein, eta plan horietarako azaltzen diren zehaztapen eta dokumentuak izango dituzte, baita honako Plan Orokor honi darizkion galdekizunak beteko direla ziurtatzeko behar beste ere.
3. Barne-berrikuntzako Plan Bereziak determinazioek beren edukian gordeko duten zehaztapenaren gradua eta lurzoru urbanizakorren gaineko Plan Partzialetakoek daukatena, baliokideak izango dira, baina nahitaez jardungo dute finkatua edo erdi-finkatua dagoen antolaketaren gainean. Eta bestaldekiz Plan Orokorrek garatuko duten plangintza arlorako azaldutako erabilera, intentsitateak eta eraikuntza tipologiak errespetatu beharko dituzte. Horrez gain, behar diren jardununeen mugaketa, bete-arazpen epeak eta haren garapenerako aukeratu duten jarduketa sistema azaldu beharko dute.

BIGARREN ATALA
BESTELAKO BALIABIDEAK

2.2.3. artikulua.—Xehetasuneko azterketak

1. Plan Orokorra hiri-lurraren gainean edo Plan Partzialak lurzoru urbanizakorretan behar bezala aplikatu nahiez gero, Xehetasuneko Azterketak egin ahal izango dira Hirigintza-Antolamenduak eratziki ohi dizkion helburu eta xedeak begira. Azken hori egingo da, beraz, beharrezkoa edo komenigarria denean edo Plan Orokorrek hori agintzen baldin duenean.

Artículo 2.1.4.—Sujeción jerárquica al Plan General

1. Los instrumentos de planeamiento que desarrollen el Plan General deberán ajustarse necesariamente a las determinaciones del mismo.
 2. Los Planes Especiales que tengan por objeto el desarrollo e implantación de infraestructuras o Sistemas Generales previstos por el Plan, podrán reajustar los límites de su ámbito superficial previsto a fin de acomodarlo a sus determinaciones y lograr una mayor coherencia y regularidad en su diseño.
- Simultáneamente con el Plan Especial se formulará, en estos casos, la correspondiente modificación del Plan General e instrumentos de desarrollo del mismo que resulten afectados, para acomodarlos a la variación introducida.

Artículo 2.1.5.—Iniciativa en la formulación del planeamiento

1. Los Planes o instrumentos que se formulen en desarrollo del presente podrán ser indistintamente de iniciativa pública o privada.
2. Los particulares tienen derecho a la consulta previa en materia de planeamiento y a la formulación de los instrumentos de Ordenación que les interese, siempre que presenten la documentación necesaria en cada caso y se acomoden a lo previsto en el Plan General y en el Ordenamiento jurídico.

Artículo 2.1.6.—Precisión de límites

1. Los límites de los ámbitos de planeamiento definidos por el Plan General podrán ser objeto de reajuste, en los respectivos instrumentos de desarrollo, cuando vengan impuestos por:
 - Alineaciones o líneas de edificación existentes.
 - Características topográficas del terreno.
 - Existencia de arbolado u otros elementos de interés.
 - Límites parcelarios.
2. El reajuste no determinará distorsiones en su forma ni aumentos o disminuciones en más de un cinco por ciento (5%) de las superficies delimitadas en los planos de este Plan General.

CAPITULO SEGUNDO
PLANEAMIENTO DE DESARROLLO

SECCIÓN PRIMERA
FIGURAS DE PLANEAMIENTO

Artículo 2.2.1.—Planes Parciales de Ordenación Urbana

1. Los Planes Parciales de Ordenación tienen por objeto, en el suelo clasificado como urbanizable, desarrollar el Plan General mediante la ordenación detallada de los correspondientes ámbitos territoriales. Se ajustarán a las condiciones de ordenación vinculante que el Plan establece para los mismos.
2. El ámbito ordenado por cada Plan Parcial deberá incluir la superficie total del sector, excluidas las correspondientes a Sistemas Generales. Antes de la formulación del Plan Parcial, si resultara necesario, podrán ordenarse mediante Plan Especial los Sistemas Generales adscritos al mismo.

Artículo 2.2.2.—Planes Especiales

1. El Plan Especial es el instrumento para el desarrollo de ordenaciones sectoriales del territorio con incidencia limitada a los aspectos urbanísticos comprendidos en sus objetivos.
2. Los Planes Especiales podrán tener como finalidad cualquiera de las establecidas en el Ordenamiento urbanístico y contendrán las determinaciones y documentos que para los mismos se detallan, así como la precisa para justificar el cumplimiento de las exigencias derivadas del presente Plan General.
3. En los Planes Especiales de Reforma Interior, el contenido de las determinaciones tendrán un grado de definición equivalente al de los Planes Parciales en suelo urbanizable pero actuarán, necesariamente, sobre la ordenación consolidada o semiconsolidada. Deberán respetar los usos, intensidades y tipologías edificatorias señaladas por el Plan General para el área de planeamiento que desarrollen y contendrán la delimitación de las unidades de ejecución que se precisen, la fijación de los plazos de ejecución y la elección del sistema de actuación para su desarrollo.

SECCIÓN SEGUNDA
OTROS INSTRUMENTOS

Artículo 2.2.3.—Estudios de Detalle

1. Para la debida aplicación del Plan General en el suelo urbano, o de los Planes Parciales en el suelo urbanizable, podrán formularse —o deberán serlo si así lo dispone el Plan General—, cuando fuere necesario o conveniente, Estudios de Detalle para los objetos y finalidades que a los mismos atribuye el Ordenamiento urbanístico.

2. Xehetasunezko Azterketek ezingo dute burutu ondokoak:

— Inondik inora azalera gutxitu Plan Orokorrek aurreikusitako bideei ez osterantzeko espazio publiko libreei, ezta gizarte-ekipamenduetakoei ere.

— Planetan esleitutako eraikigarritasunak gehitu.

— Lurzoruaren okupazioa, eraikigarritasuna eta garaiera gehitu, ezta populazioaren dentsitatea, ezta Plan Orokorrek esleitutako erabilera bakarra ez gailena aldarazi ere.

3. Xehetasunezko Azterketek Hirigintzako antolamenduan adierazitako zehaztapenak atxiki beharko dituzte, hala nola Plan Orokor honen arabera moldatuak daudela ziurtatzeko behar beste dokumentu eranskarri.

2.2.4. artikulua.—Hirigintza-proiektuak

1. Hirigintza-proiektuek, obra-proiektuak direnek, daukaten helburua da Plan Orokorretik doazkien zehaztapenak obratan ezartzea, hiri-lurzoruari begira, eta Plan Partzialenak egikaritzea, lurzoru urbanizakorren gainean.

Prestatu ere egin ahal izango dira Hirigintza-proiektuak Barne-berrikuntzako Plan Bereziak burutzeko.

2. Hirigintza-proiektuetan, proiektu batean edo gehiagotan bada ere, hurrengoak burutzekotzat beharkeo obrak ezarriko dira: bideak, espazio libreak eta berdeguneak, uraren horniketa, saneamendua, elektrikaren horniketa, gas erregariaren horniketa, telefonia, telekomunikazioak eta oro har, beste edozein zerbitzu azpiegiturazkorik, Planak aurreikusitakorik edo udalak premiazkoa deritzanik.

3. Hirigintza-proiektuek erabaki beharra daukate nola elkarlotu barrutiko hirigintza-zerbitzuak, bertarako diseinatuak dauden bezala, eta horiek berak estekatuko zaizkien zerbitzu orokorrak, eta hortarako egiaz-tatu beharko dute azkeneko hauek behar besteko zuzkidura edo gaitasuna dutenez.

4. Hirigintza-proiektuek ezin edukiko dute zehaztapenik batere antolaketaren, lurzoruaren edo eraikuntzen araubidearen gainean, ezta garatzen duten Planaren aurreikuspenik aldarazi ere, nahiz eta obrak egikaritzean premia diren egokierak zertu ahal ditzaketen.

5. Hirigintza-proiektuek dauzkatenak, Hirigintza-antolamenduak eta honako arau hauek dauzkatenak berak izango dira. Instalazioen ezaugarri geometrikoak eta teknikoak eutsi beharrean egongo dira udalako horietarako onartutako xedapenei edo gerora ezar ditzakeenei.

6. Hirigintza-proiektuak Hirigintza-antolamenduak dioen arabera izapidetuko dira eta onartuko.

7. Planeamenduaren tresna bat erabat garatzea xedea ez duten proiektuak, edo obra egin-egina kontserbatzea edo konpontzea edo mantentzea baino beste helbururik ez daukatenez, ez dira hirigintza-proiektu-tzat hartuko, obra arruntnekotzat baizik.

8. Udalak berak prestatu ahal izango ditu obra edo zerbitzu bakoitzerako Baldintza Teknikoen eta Ekonomiko-Administratiboen Plegu Orokorrek, Plan Orokor honek dauzkanak garatzen dituela, diseinuaren eta kalitatearen gainean xedatutako gutxieneko irizpideei eutsiz eta ezartzeko diren gutxieneko prezioak sartuz. Ezartzeko diren gutxieneko preziorik izan ezean, Eusko Jaurlaritzak prestatutako Prezioen Oinarrian ezarritakoak izango dira horiek.

Udalerriko eredu normalizatu ofizialak agindu ahal izango ditu, halaber, zerbitzuen sareetako zenbait elementutarako, halakoak nolakoak baitira argiak edo luminariak, kutxetak, isurbideak, erregistro-putzuak, ixteko giltzen kutxetak, erretenen ebakidura-eredua, eta abar. Eredu hoiei, bada, eutsi beharrean egongo dira inork jarriko dituen guztiak.

HIRUGARREN KAPITULUA
PLANGINTZAREN BURUTZAPENA

2.3.1. artikulua.—Hirigintza jarduketa orori eskatu beharreko baldintzak

1. Hirigintza-jarduketa guztiak, plangintza burutzeko gauzatzen bada, sistema orokorren edo haien elementuetakoren baten betearazpen arteza izan ezik, eta beregainkiri, eraikuntza berriak egitekotzat denak, doazkion hirigintzako legeek agindu bezala, egon beharra dauka Planak mugatutako banaketako arloetakoren baten barruan sartuta eta halakotan, jardunune bati erantsita, zeini finkatu izan baitzaio beharreko jarduketa-sistema, hala non segurtza dezan mozkinak eta kargak bidezki banatuko direla eta legezko eginbideak erabat beteko direla haren azalera osoa lagatzearen eta urbanizatzearen aldera (jarduketa sistematikoa).

2. Guztiarekin ere, baldin hiri-lurzoruan jardunenerik mugatu ez balitz, dagokion banaketako eremuen barruan, jabetzeko gai diren aprobetxamenduak eta Planak egiazki baimentzen dituenak bata besteari doitu beharko litzaizkioke aprobetxamendu-transferentzia eginez (jarduketa asistematikoa).

2.3.2. artikulua.—Jardununeen mugaketa

1. Hiri-lurzoruari dagokionez ezarri diren zehaztapenak Jardununeak mugatu ditu Planak banaketako eremuen barruan eta azken horien eremu

2. Los Estudios de Detalle no podrán:

— Reducir en ningún caso la superficie del viario y demás espacios públicos libres o de equipamiento comunitario previstos en el Plan General.

— Incrementar las edificabilidades asignadas por los Planes.

— Aumentar la ocupación de suelo, edificabilidad y alturas máximas, densidad de población ni alterar el uso exclusivo o predominante asignado por el Plan General.

3. Los Estudios de Detalle contendrán las determinaciones señaladas en el Ordenamiento urbanístico, así como cuanta documentación adicional fuera precisa para justificar su acomodación al presente Plan General.

Artículo 2.2.4.—Proyectos de Urbanización

1. Los Proyectos de Urbanización son proyectos de obras cuya finalidad es llevar a la práctica, en suelo urbano, las determinaciones correspondientes del Plan General y, en suelo urbanizable, la realización material de las propias de los Planes Parciales.

También podrán redactarse Proyectos de Urbanización para la ejecución de Planes Especiales de Reforma Interior.

2. Los Proyectos de Urbanización establecerán, en uno o varios proyectos, las obras correspondientes a la ejecución del viario, espacios libres y zonas verdes, abastecimiento de agua, saneamiento, abastecimiento de energía eléctrica, de gas energético, telefonía, telecomunicación y cualesquiera otros servicios infraestructurales que el Plan prevea o el Ayuntamiento considere necesarios.

3. Los Proyectos de Urbanización deberán resolver el enlace de los servicios urbanísticos del ámbito para el que se proyectan con los generales con los que entronquen, para lo cual deberán verificar que éstos tienen la dotación o capacidad suficiente.

4. Los Proyectos de Urbanización no podrán contener determinaciones sobre ordenación, régimen del suelo o de las edificaciones, ni modificar las previsiones del Plan que desarrollen, sin perjuicio de que puedan efectuar las adaptaciones exigidas por la ejecución material de las obras.

5. El contenido de los Proyectos de Urbanización será el establecido en el Ordenamiento urbanístico y presentes Normas. Las características geométricas y técnicas de las instalaciones se ajustarán a lo señalado en las disposiciones que, a tal efecto, tiene aprobadas el Ayuntamiento o a las que en lo sucesivo establezca.

6. Los Proyectos de Urbanización se tramitarán y aprobarán conforme a lo establecido en el Ordenamiento Urbanístico.

7. No tendrán la consideración de proyectos de urbanización, sino de obras ordinarias, los que no tengan por objeto el desarrollo integral de un instrumento de planeamiento o que tengan por finalidad la simple conservación, reparación o mantenimiento de una obra ya realizada.

8. El Ayuntamiento podrá redactar los Pliegos Generales de Condiciones Técnicas y Económico-Administrativas para cada obra o servicio, en desarrollo de las contenidas en el presente Plan General y con respecto de los criterios mínimos de diseño y calidad definidos, con inclusión de los precios mínimos aplicables. En su defecto, los precios mínimos aplicables serán los establecidos en la base de precios elaborada por el Gobierno Vasco.

Podrá así mismo establecer modelos normalizados oficiales del municipio para distintos elementos de las redes de servicios como luminarias, arquetas, sumideros, pozos de registro, arquetas de llaves de paso, sección tipo de canalizaciones, etc., a los que se ajustarán todos los que se coloquen por particulares.

CAPITULO TERCERO
EJECUCION DEL PLANEAMIENTO

Artículo 2.3.1.—Condiciones exigibles a toda actuación urbanística

1. Toda actuación urbanística que se lleva a cabo para la ejecución del planeamiento, salvo la ejecución directa de los Sistemas Generales o de alguno de sus elementos, y, en especial, las que se refieran a la construcción de nuevas edificaciones, tiene que estar incluida, con arreglo a lo previsto por la legislación Urbanística aplicable, en alguna de las áreas de reparto que el Plan delimita y, en su caso, estar incorporada a una Unidad de Ejecución, para la que se fija el correspondiente sistema de actuación que garantice la distribución equitativa de los beneficios y cargas y el cumplimiento conjunto de los deberes legales de cesión y urbanización de la totalidad de su superficie (actuación sistemática).

2. No obstante, cuando en el suelo urbano no se hubieren delimitado dentro del área de reparto correspondiente, Unidades de Ejecución, el ajuste entre los aprovechamientos susceptibles de apropiación y los reales permitidos por el Plan se llevará a cabo mediante transferencias de aprovechamiento (actuaciones asistemáticas).

Artículo 2.3.2.—Delimitación de Unidades de Ejecución

1. Para la ejecución de las determinaciones establecidas en el suelo urbano, el Plan delimita dentro de las áreas de reparto Unidades de Eje-

barruan lurren azalerak hartzen dituzte, eta horien bidez betetzen dira lagapenerako legezko betebeharrak eta eremu osoko banaketa eta urbanizazio betebeharrak.

2. Jardununeak ez badaude Plan honetan aurreikusita, mugatzerakoan edo horrezkero mugatuta daudenak aldaraztekoan, hirigintzako antolamenduan agindutakoaren arabera egin beharko da.

2.3.3. artikulua.—*Jarduketa sistemak*

1. Plangintzak mugatutako jardununeen garapenari ekin beharko zaio honako Hirigintzako Arau hauetan xedatutako jarduketa-sistemaren bitartez, lege agindutakoarekin bat datorrela garatu behar dela.

2. Dena den, Plan Orokorrean aurreikusitako jarduketa sistema aldaraz daiteke hirigintzako antolamenduan ordenatu bezala edo eta premia den garapen-tresna onartzearekin batean.

2.3.4. artikulua.—*Konpentsazio sistema*

Konpentsazio sistemaren xedea da jardununearen kudeaketa eta bete-arazpena, haren perimetro barruko lurzorua jabeek berek egin dezaten, karga-mozkinak «in solidum» beregain hartzen dituztela, eta nahitaezko lagapenerako lurrak hornitzen, eta beren pentsutan egiten dituztela hirigintza-lanak Planean erabakitako erari eta baldintzei eutsiz.

2.3.5. artikulua.—*Lankidetzeta sistema*

Lankidetzako sistemaz den bezainbatean, jardununeko lurzorua jabeek nahitaezko lagapenerako lurzoria eman behar dute eta udalak hirigintzako lanak egin, haien kontura.

2.3.6. artikulua.—*Desjabetzeko sistema*

Desjabetzeko sistemaren Administrazio jarduleak jardununera bildutako lurzoria, beste ondasun batzuk eta eskubideak eskuratzen ditu eta dagokion hirigintza jarduketa burutzen du.

2.3.7. artikulua.—*Borondatezko birzatiketa*

Borondatezko birzatiketako kontuan, jardununeko jabe guztiak erabakitakoa bera, halako hainbanatze-sistemak gaina hartuko dio Plan orokorrean eraturakoari, desjabetzekoari ez baina, aldaketa hori egiteko inolako prozedurarik izapidetu beharrik gabe, bere-berez burutuko baitu.

Jardununeko hirigintza lanak jabeek berek burutuko dituzte Planak emandako epe barruan edo hau egon ezik, borondatezko birzatiketako proiektuan ezarritako denboraren buruan. Eta horako epe hori amaituta hirigintzako obrak hasi eta egikaritzen bururatu gabe, udalak beregain hartuko ditu haiek eta berak egingo, onartutako hirigintza-proiektuaren arabera eta eragindako jabeen kontura.

HIRUGARREN TITULUA

LURRALDEKO HIRIGINTZA-ZATIKETA ETA LURZORUAREN ARAUBIDE OROKORRA

LEHENENGO KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

3.1.1. artikulua.—*Lurzoruaren zatiketa haren sailkapenaren arabera*

1. Indarrean dauden hirigintzako legeek agindu bezala, honako Plan honek Getxoko udalbarrutia sailkatu du hiru zatitan: lurzoru urbanizagaitza, programatutako lurzoru urbanizakorra eta hiri-lurzoria.

2. Sistema orokorretarako erreserbatutako lurzoria eta eratzikitzen diren lurzoru motak betearazpenari buruzko araubide juridiko berari lotuak daude, lurzorua balorazio eta lorpenari dagokionez.

3.1.2. artikulua.—*Lurzoruaren zatiketa haren kalifikazioaren arabera*

1. Arau hauen ondoretarako, hirigintza kalifikazioko eremua da sailkapen bereko lurren multzoa, hau da, erabilera, eraikuntza, betearazpen eta Plan honen garapenari dagokionez baldintza eurretan daudenak.

2. Kalifikazio xehatua deritza landa edo finka bakoitzaren erabilera eta eraikuntzako baldintza zehatzten multzoari, haren beraren helburu publikoa edo pribatua ere adierazita.

Gerorako antolaketaren menpeko espazioetako erabilerak dagokien garapenaren planeamendua arabera egingo dira.

3.1.3. artikulua.—*Lurzoruaren zatiketa haren antolaketaren arabera*

1. Planak daukan antolaketaren xehetasun mailari begira, lurzorua mota eta kategoria ezberdinei buruz, ondoko antolaketa motak bereizten dira:

cución que incluyen en su ámbito superficies de terrenos que permiten el cumplimiento conjunto de los deberes legales de cesión, equidistribución y urbanización de la totalidad de su ámbito.

2. La delimitación de Unidades de Ejecución no previstas en el presente Plan o la modificación de las ya delimitadas, se llevará a cabo con arreglo a lo establecido en el Ordenamiento urbanístico.

Artículo 2.3.3.—*Sistemas de Actuación*

1. El desarrollo de las Unidades de Ejecución delimitadas por el planeamiento se llevará a cabo mediante el sistema de actuación previsto para la misma en las presentes Normas Urbanísticas, que se desarrollará a tenor de lo establecido legalmente.

2. En cualquier caso, podrá modificarse el sistema de actuación previsto en el Plan General conforme a lo dispuesto en el Ordenamiento urbanístico o al aprobarse el instrumento de desarrollo que se requiera.

Artículo 2.3.4.—*Sistema de compensación*

El sistema de compensación tiene por objeto la gestión y ejecución de una Unidad de Ejecución por los propietarios del suelo comprendido en su perímetro con solidaridad de beneficios y cargas, aportando los terrenos de cesión obligatoria y realizando a su costa la urbanización en los términos y condiciones que se determinan en el Plan.

Artículo 2.3.5.—*Sistema de cooperación*

En el sistema de cooperación, los propietarios del suelo comprendido en la Unidad de Ejecución aportan el suelo de cesión obligatoria y el Ayuntamiento ejecuta las obras de urbanización con cargo a los propietarios.

Artículo 2.3.6.—*Sistema de expropiación*

En el sistema de expropiación la Administración actuante adquiere mediante dicho instituto el suelo y otros bienes y derechos incluidos dentro de la Unidad de Ejecución y lleva a cabo la actuación urbanística correspondiente.

Artículo 2.3.7.—*Reparcelación voluntaria*

En el supuesto de reparcelación voluntaria, acordada por la totalidad de los propietarios incluidos en la Unidad de Ejecución, prevalecerá dicho sistema de equidistribución sobre el que se hubiere establecido en el Plan General, salvo que fuere el de expropiación, sin necesidad de tramitar procedimiento alguno para tal cambio, que operará de forma automática.

Las obras de urbanización de la Unidad de Ejecución se realizarán directamente por los propietarios dentro del plazo que viniere fijado en el Plan o, en su defecto, se establezca en el proyecto de reparcelación voluntaria. Transcurrido dicho plazo sin haberse iniciado y completado la realización de las obras de urbanización, asumirá su ejecución el Ayuntamiento, quien las realizará conforme al proyecto de urbanización aprobado al efecto, a costa de los propietarios afectados.

TITULO TERCERO

DIVISION URBANISTICA DEL TERRITORIO Y REGIMEN GENERAL DEL SUELO

CAPITULO PRIMERO

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 3.1.1.—*División del suelo en razón a su clasificación*

1. El presente Plan, de conformidad con la legislación urbanística vigente, clasifica el término municipal de Getxo en suelo no urbanizable, suelo urbanizable y suelo urbano.

2. El suelo reservado a Sistemas Generales se encuentra sujeto al mismo régimen jurídico de ejecución, a los efectos de su valoración y obtención, que la clase de suelo a la que se adscriben.

Artículo 3.1.2.—*División del suelo en razón a su calificación*

1. A los efectos de las presentes Normas, se denomina zona de calificación urbanística el conjunto de terrenos de una misma clasificación, que se encuentran sujetos a condiciones homogéneas de uso, edificación, ejecución y, en ciertos casos, de desarrollo del presente Plan.

2. Se entiende por calificación pormenorizada las condiciones concretas de uso y edificación de cada predio, expresando, también, el destino público o privado del mismo.

La pormenorización de los usos en los espacios sujetos a una ordenación posterior se realizará por el planeamiento de desarrollo correspondiente.

Artículo 3.1.3.—*División del suelo en razón de su ordenación detallada*

1. Atendiendo al grado de detalle de la ordenación contenida en el Plan sobre las distintas clases y categorías del suelo, se distinguen los siguientes tipos de ordenación:

a) Hiri-lurzoruan

— *Diseinatu edo ezarritako eraikuntzakoa*: Honako lurzoru honetan zuzeneko antolaketa finalista bada, eta horren garapena Plan Orokorren beraren zehaztapenak aplikatzearen bidez gauzatzen da, lerrokadurak, ses-tra-lerroak, ustiaketak eta erabilerak xehatuak dauzkalako.

— *Diseinatu gabeko eraikuntzakoa*: Plan Orokorra zenbait parametro loturazkorik agindu dio honi, baina eraikuntzaren azkeneko taxuketa egiterakoan Eraikuntzako Proiektu bat edo hala beharrez, Xehetasuneko Azterketa bat prestatzera beharturik.

b) Lurzoru urbanizakorrean

— *Sektoreak*: Hauexek dira programatutako lurzoru urbanizakorren barrutiak, non Plan Orokorra antolaketaren egitura orokorra halako zehaztasunaz erabakitzeko baitu, nolako premia baitu Plan Partzialak prestatu ahal izateko, finkatutako eremu bereziei erabateko intentsitateak eta erabilerak eratzizkitzen dizkiela.

2. Gararapeneko plangintza esparru desberdinen mugaketa Planaren dokumentaziora bildurik dago eta horietarako antolamenduari buruzko baldintza berezien arauketa bederatzigarren tituluan agertzen da.

3.1.4. artikulua.—Lurzoruaren zatiketa haren kudeaketa eta burutzapenaren arabera

Lurzoru kategoria desberdinetako kudeaketa eta burutzapenari buruzko baldintza bereziak definitzeko, Plan Orokorra ondoko esparruak mugatzen ditu:

1. Hiri-lurzoruan:

— Jardununeak. Etenak eta etengabeak, banaketako eremuen barrukoak, planeamenduen egikaritzapenerako esparruak direnak eta segurtza dezaketena, azalera osoaren lagapen, berdin-banaketa eta urbanizatzeko betebeharrak elkarrekin batean bete direla.

— Jarduketa asistemakoak. Hauek direla medio, jardununeen bidez jarduterik ez dagoen barrutietan, jabetza izan dezaketena aprobetxamenduen eta plangintzan onartzen diren aprobetxamendu errealean arteko lotura ziurtatzeko.

2. Lurzoru urbanizakorra: hemen Plan Orokorra mugatutako sektoreak Plan Partzialen bitarteko dira haren kudeaketarako.

3. Lurzoru urbanizagaitza: Planak mugatutako zonetan diharduteak, lurzoru mota horretarako bereizitako kategoriak dira.

4. Sistema Orokorren garapenerako lurzoruaren barrutiak mugatzen ditu Planak eta haien betearazpena Administrazioaren beraren esku dago.

BIGARREN KAPITULUA**SISTEMA OROKORREN ARAUBIDEA****3.2.1. artikulua.—Definizioa eta egitura**

1. Sistema Orokorra lurraldeko egitura orokorraren eta organikoaren funtsezko elementuak dira, Plan Orokorra Getxoko udalerrirako erabaki duen hiri-garapeneko ereduaren arabera agindu bezala.

2. Eta erabakitako hiri-garapeneko ereduarekin bat datorrela, Planak hurrengo sistema orokorren motak izendatu ditu:

- Espazio libreen eta berdeguneen sistema orokorra.
- Komunikazioen sistema orokorra.
- Ekipamenduen sistema orokorra.
- Azpiegituren sistema orokorra.

3.2.2. artikulua.—Sistema orokorren arauketa

1. Sistema orokorren elementuetara bildutako erabileren arauketa eta horien burutzapenerako errespetatu beharreko baldintzak Arau hauek agertzen dira. Baldintzok Plan Bereziak eta Proiektu teknikoak eta urbanizazio proiektuek errespetatu beharko dituzte beti ere, hau da, elementu horiek burutzeko azal daitezkeenak.

2. Arau hauek hala aginduta, plan bereziak eratzea beharrekoa izango da sistema orokorren antolaketarako, arauketarako eta betearazpenerako.

3. Gainerako sistema orokorren edo haien elementuen garapena dagoen proiektu teknikoak eginez gauzatuko da.

3.2.3. artikulua.—Jabetasuna eta hirigintza-araubidea

1. Sistema orokorretarako diren lurrak, honako Plan Orokor honek dispostatzen duen erabilerari edo zerbitzuari atxikita daude eta Getxoko udalari edo artean diharduen erakundeari eskualdatu behar zaizkio, halakoari dagozkion arauekin bat etorrira.

2. Udalarenaz beste jabetasun publikoa duen lurzoru gaineko sistema orokorra, zeintzuen erabilerak eta Plan Orokorra aurreikusitakoa bat

a) En el suelo urbano

